

# Hitzaurre gisa

**Belen Uranga**

*Soziolinguistika Klusterra*

b.uranga@soziolinguistika.org



**BAT aldizkaria egiten dugunok pozik egoteko arrazoi ugari dugu zenbaki bikoitz honen aurkezpena egiteko orduan.** Alde batetik, Euskaltzaindiarekin elkarlanean aritzeak esanahi berezia du guretzat, biek ala biek, norbera bere lan-esparrutik, euskararen aldeko lanetan dihardugulako etengabe ezagutza eta garapena sustatzeko helburuarekin. Bideen gurutzatze honetan elkartu izanak bereziki poztu gaitu, eta, horretan, zeresana izan du zenbaki honen muina garatu duen Mikel Zalbide euskaltzainak. Aspaldiko laguna —eta hainbat

proiektutan lankide ere— badugu Klusterrean Mikel, eta lankidetzaren emankor horren inguruan sortu zen Pablo Suberbiola Klusterreko teknikariaren eta bere artean erronka honi heltzeko gogoia eta asmoa.

Hemen aurkezten dugun zenbakia erronka horri erantzunez lorturiko emaitza da; ez dio aldizkariaren ohiko moldeari jarraitzen egiturari dagokionean, baina bere helburu nagusiari zuzen-zuzenean erantzuten dio, hau da, soziolinguistika esparruko ezagutza teorikoari bulkada ematea eta bozgorailu izatea, horrela, arlo teorikotik praktikarako zubiak egitea erraztuz.

Irakurleak ikusiko du azken urteetan euskal soziolinguistika arloko gai nagusienetako bat hartu dugula gai zentral eta monografiko mo-

dura. Eta horrela, aipatu helburuei fin asko erantzun dio Mikel Zalbidek. BAT aldizkariak, beste aldizkari berezitu askoren antzera, hainbat egileren ekarpenekin osatu izan ditu bere zenbaki monografikoak, euren ikerketa zientifikoan oinarritutakoak, garapen teorikoko planteamenduetan edota ekimen praktikoetatik sortutako artikuluak bilduz.

Oraingo honetan, aldiz, *Diglosiaren* inguruan Mikel Zalbidek idatzi du zenbaki honen muina den txosten ezohikoa. Apartekoa da txostena, bai bere luzeran –aldizkari zientifikoetan argitaratzen direnak baino luzexeagoa-, eta apartekoa bere sakontasunean. Ez dugu uste oker gabiltzanik esaten dugunean Euskal Herrian behintzat, *diglosiaren* inguruan zerbait jakin nahi duenak hemendik aurrera aintzat hartuko duela Zalbidek eginiko lan hau, ezinbestean.

Baina, pozteko beste arrazoi bat ere badugu. Oinarritzko txostenaren aurkezpena Soziolinguistika Klusterrak antolatzen dituen Euskal Soziolinguistika Jardunaldietako IV.ean egin zen, bertan bi izan zirelarik aurrez aurre erantzun ziotenak Zalbideri: Paula Kasares eta Iñaki Martinez de Luna. Orduko saioa osatu eta beste bost kidek hartu dute hitza euren ekarpena emateko artikulu laburren bitartez: Julen Arexolaleibak, Maria-Jose Azurmendik, Xabier Isasik, Lionel Jolyk eta Joxe Manuel Odriozolak. Ez genuke aipatu gabe utzi nahi

erantzun horiek izan dutela luzera-muga bat, aldizkari honek ezarritakoak, ezinbestean. Esango genuke BAT Aldizkariaren beste helburuetako bat ere bete dela iritzi emate horiekin. Eta hori da hain zuzen pozteko dugun beste arrazoi bat. Etorkizunerako ere elkarlanerako modu emankorra izan nahi luke ariketa horrek, alegia, adituen arteko iritziak zorrotz aztertzeo gonbidapena egitearenak.

Zer dio ordea Mikel Zalbide euskaltzain eta soziolinguistak?

Bere hitzak erabiliz “*Diglosiaren* gaineko argitze-saioa izan nahi du txostenak. Helburu batekin, gure artean indarrean dauden ikuspegi nagusiak zehazteko eta, ahal izanez gero, bateratu litekeena bateratzen saiatzeko”. Hor dago, gure ustetan gakoetako bat: bateratu litekeena bateratzen saiatzea.

Txostenaren oinarrian dagoena esaldi bakarrera ekarriko bagenu *diglosiaren* inguruko formulazio berritua planteatu beharraren ideia aldatuko genuke. Bere iritzi, termino beraren esanahi desberdinak ez ezik kontrajarriak ere hedatu dira dagoeneko. Gogora ekartzen du nazio artean ere horrelako polisemia orokortu bat badagoela, eta badirudiela buruturiko argitze-saioek ere ez dutela nahi bezalako arrakasta izan. Baina, jakina, polisemia ahalik eta txikiena izan beharko luke zientziaren esparruan, eta, beraz, saioaren helburua, besteak beste, konpondu daitezkeen desadostasunak konpontzen saiatzea da, *diglosiaren* adiera teknikoa eta popularra oso hurbiletik aztertuz, jakinik gainera “*adiera popular horrek tiradizo oso handia duela Euskal Herrian*”.

*Diglosia* terminoaren jatorria eta ibilbidea argitu du Zalbidek txostenean, bere jatorritik 1959ra arteko ibilbidea; Greziatik Fergusonera, ondoren, Fishman-en ekarpena parez pare ezarriz. Herrialde Katalanetatik datorren

*Menderatuen diglosiaren* bidea ere zehatu du bere indarguneak eta ahuleziak erakutsiz. Azkenik, Euskal Herrian izan duen garapenari begirada oso sakona eskaini dio, tartean, sona handiko beste soziolinguista askoren ekarpenak ere bilduz.

Eta garapen semantiko horren arabera egin du Mikelek bere diagnosis, galdera zehatzei erantzunez: “Egoera diglosikoan al gaude? Gero eta egoera diglosikoagoan? Zein da gure egoera konkretua?” Era berean, *diglosiaren* formulazio berrituaren inguruko saiakera garrantziko bat egin du euskara indarberritzeko orduan egoera ezinbesteko ikusten baitu. Beraz, amaitzeko, terminoaren birformulatze bat planteatzen du.

Baina aldizkari honetara ekarri ditugu soziolinguistikaren dibulgazioaren inguruan Klusterrak sustatu dituen hainbat ekimenen testigantza idatziak ere. Arestian aipatu jardunaldian gai zentrala izan genuen soziolinguistika-arloko ezagutza zabaltzeko eta dibulgatzeko dauden zailtasunak, eta abian jarri beharreko modu berrien inguruko hausnarketa ere. Bide horretan, BAT aldizkariak berak, bere barne prozesuaren hausnarketaren ondorioz, aldizkari zientifikoen homologazioaren bila doan erreian sartu da. Eta oso hurbiletik jarraitu nahi die egungo transmisio-joera berrietan gertatzen ari diren aldaketei. Horregatik

bada, oso interesgarriak iruditu zaizkigun hiru artikulu eskaintzen ditugu zenbaki honetan: lehenak, Juan Carlos Etxegoien *Xamarrek* bere ibilbideko burutazio eta erronkaren etengabeko tentsio horretan zentratu eginiko elkarrizketa biltzen du; bigarrenak, garapen teorikoa hedatzeko gaur egungo eredu berrien inguruko eztabaida interesgarria jasotzen duena, Arkaitz Zarragak zuzenduriko mahai-inguruaren lekuko, eta azkenik Katalunian soziolinguistikaren zabalkundean izandako ibilbidearen berri ematen duena, Jordi Solé i Camardons-en eskutik ekarria.

Ondoren, Xabier Isasi soziologoak Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2011ko hasieran argitaratutako Euskara: erabilera, jarrerak, politika inkestaren harira idatzi du bere iruzkin kritikoa, inkestaren metodoaren inguruko gogoetatik abiatuta.

Zenbaki bikoitz honi amaiera emateko bi liburu erreseina ere bildu ditugu. Lehenak Joseba Intxaustiren *Euskararen Historia Soziala (EHS)*. *Argibide bibliografikoak* liburuari Lionel Jolyk eginikoa eta Amorrortu eta besteren *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak* (2009) ikerketa-liburuari Naiara Berasategik idatzitakoa.

BAT aldizkaria egiten dugunok eskerrak eman nahi dizkiegu zenbaki bikoitz hau prestatzeko beren ahalegina egin duten guztizguztietei: egile, eztabaida-kide, artikulugile. Modu berezian aipatu nahi genuke HABA liburutegiko langileek eskaini diguten arreta eta emaniko laguntza, ezinbestekoa izan baita lan hau egin ahal izateko. Euskaltzaindiari gure esker ona adieraztea besterik ez dagokigu, lankidetzaren bide berri honetan lehen urratsa izan dadineko esperoan. Eta zer esanik ez, Mikel Zalbideri gurekin batera lan honi heltzeko ilusioa transmititu digulako. •